

Harian

11 ■ Raxoik legez kanporatzeak eskatu ditu
 EAE-ANV «brehala legez kanporatzeko» eskatu dio
 Mariano Raxoi PPko buruak Espainiako Gobernuari.

Pobrezia, geroz eta lausoagoa

Gurean etenik gabe gora doa oinarrizko errentarekin bizi diren herritarren kopurua. Laguntza horrekin EAEn pobrezia larrian dagoen biztanleen %3,7ra heltzen dela dio Jaurizaritzak.

JON REJADO /AITOR RENTERIA
 Gasteiz-Baiona

Pobreziaren Kontrako Nazioarteko Eguna izateko hiru egun baino ez dira falta. Pobrezia kontzeptu korapilatsua bilakatu da; neurgailuaren arabera, oso egoera ezberdinak islatu ditzake hitz horrek. Eztabaida hori bera oinarrizko errentari buruz ere ematen da, erakundeek bazterketa soziala bizi dutenek edo horren arriskua dutenak gizarteratzeko erabiltzen duten tresna nagusiari buruz.

2000. urteko Gizarte Eskubideen Agiriarekin batera indartu zen oinarrizko errenta Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, eta urte bat lehenago Nafarroak eman zuen jautzia. Ordura arte bazen antzeko helburua zuen laguntzarik, Gizarteratzeko Gutxieneko Diru Sarre-
 rera kasu.

Urtero gora egin du laguntza hori jasotzen duten hartzaileen kopuruak: guztira 39.172 bizikidetzak unitatek jaso zuten laguntza hori Hego Euskal Herrian 2006. urtean. Hala ere, zehaztu behar da hasiera batean Lanbide Arteko Gutxieneko Soldataren (LGS) %75aren azpitik zeudenak zutela oinarrizko errenta jasotzeko eskubidea. Eta portzentajea handitu ahala (Nafarroan %80; Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan %88), geroz eta jende gehiagok izan du oinarrizko errenta jasotzeko eskubidea.

Familien Laguntzarako Kutxaren arabera, 2007ko urtarrilean 5.343 lagunek eskuratu zuten gutxieneko gizarteratze laguntza Zuberoan, Nafarroa Beherean eta Lapurdin.

EAEn pobrezia larrian dagoen

biztanleen %3,7ra heltzen dela dio Jaurizaritzak laguntza horiekin.

LANA AURKITZEA GILTZA. Oinarrizko errenta hilero jasotzen da, premia egoera desagertu arte. «Gizarteratzea eta lan merkatura itzultzea oinarrizko errentarekin batera datozen helburuak dira», dio Mikel Santiago Eusko Jaurizaritzako Gizarteratze zuzendariak. Hitzarman bat sinatu behar dute laguntzaren hartzaileek prestaketa horretan «konpromisoa» hartzeko, eta orduan hasiko dira «oinarrizko beharizanak». Dena den, lan merkaturatzeko helbururik ez duten hainbat hartzaile badago, pentsioan jasotzen dituztenak kasu.

Ikastaro eta tailerretan parte hartzen dutenen %20 bertan «kronifikatuta» daudela onartu arren, gehienak lan merkatura heltzen direla dio Santiagok. «Urtebete azpitik jaso ohi dute oinarrizko errenta, gero lan mundura heltzen baitira».


Gizarte elkarteek beste iritzi bat dute. Oinarrizko errenta jasotzen dutenek egiten dituzten ikastarok ez direla merkatura egokitzen diote. Are gehiago, alor horretan «mafiak» sortu direla kritikatu du Nekane Jurado Elkartzeko kideak: «Ikastarok emateagatik diru laguntzak ematen dira, eta horretaz baliatzen dira hainbat diplomak banatzeko». Bestetik, pobrezia sortzen duen lan merkatura onartzen ari dela deritza Juradok. «LGS pobreziaren atarian jarri beharko litzateke, haien benetako merkaturatzea lortu ahal izateko». LGS igotzeko iritziarekin bat dator Santiago, baina bertan bere sailak eskumenik ez duela azaldu du. 2007an 7.988,4 eurokoa da Hegoaldean LGS eta 7.029,84koa oinarrizko errenta (Nafarroan 5.477,76 eurokoa da).

ETXEBIZITZA, EZTABAIDAGAI. Eusko Jaurizaritzako Gizarteratzeko II. Planak lanari dagozkion politika aktiboak hobetzeko ahalegina egingo duela aurreratu du Santiagok. Horretaz gain, etxebizitzarako osagarria oinarrizko errentan sartu nahi dutela dio: «Diru kopu-

LAGUNTZA SOZIALA EUSKAL HERRIAN


Oinarrizko errentaren onuradunak

Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan




Gizarte larrialdietarako laguntzak

Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan



Oinarrizko errenta

Nafarroan



* Aurreikuspena

Laguntza soziala jasotzeko araudiak

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa

Baldintzak

- 23 urte baino gehiago izatea.
- Arabako, Bizkaiko edo Gipuzkoako edozein udalerritan gutxienez urtebetez errolaturik egotea.

Diru laguntzak

- Urteko lanbidearteko gutxieneko soldataren %87, 12 ordainetan.

Bizikidetzak unitateko pertsona	Oinarrizko errenta hilero
1	585,82 €
2	752,25 €
3	818,82 €
4	832,13 €
5 edo gehiago	832,13 €

Nafarroa

Baldintzak

- 25 urte baino gehiago eta 65 urte baino gutxiago izatea.
- 25 urte baino gutxiago izatea, baldin eta familia unitate independentea osatzen badu.
- Eskatu baino bi urte lehenagotik Nafarroako errolan izena emanda egotea.
- Aurretik beste administrazioei jaso ahal dituen laguntza, pensio edo subsidio guztiak eskatu behar dizkie.
- Salbuespenak salbuespen, gizarte zerbitzuarekin gizarteratzeko akordioa sinatu behar da.

Diru laguntzak

- Urteko lanbidearteko gutxieneko soldataren %80, 12 ordainketetan.

Bizikidetzak unitateko pertsona	Oinarrizko errenta hilero
1	456,48 €
2	542,07 €
3	599,13 €
4	656,19 €
5	713,25 €
6 edo gehiago	741,78 €

ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA, NAFARROAKO GOBERNUA, CAF

Ipar Euskal Herria

Frantziako irizpideen arabera, 480 eta 650 euro bitartean dago pobretasun muga. Diru sarrera horietatik behera bizi direnak dira pobreak. Pobreak jasotzen dituzten diru laguntzak RMI gizarteratzeko gutxieneko errenta dira. Errenta hori 440,89 eurokoa da bakarrik bizi den pertsonarentzat. RMIren banaketa departamenduko Kontseilu Nagusiaren esku da. Hainbat gizarte erakunde lan egiten dute pobreak laguntzeko eta sostengatzeko, bai gizarte laguntzaileek, bai Emmausek, bai Elikagai Bankuak eta bai beste erakunde pribatu askok.

	Guraso bakarra	Bikotea
Haurrik gabe	440,89 €	661,29 €
Haur bat	661,29 €	793,55 €
2 haur	793,55 €	925,81 €
3 haur	969,89 €	1.102,81 €
4 haur	1.146,23 €	1.278,49 €
5 haur	1.322,57 €	1.454,83 €



Pobreziaren kontra Donostian eginiko manifestazio bat. JAVIER ETEKZARRETA / EFE

Eskubide bera, oztopo gehiago

«Etorkinek oinarrizko errenta jasotzeko eskubide osoa dute, Espainiako Atzeritarren Legea horrela aitortuta, hemen bizitzeko beharrezkoa dokumentazioa izan edo ez». Oinarrizko errenta jasotzeko eskubide hori aipamatu du Fede Garcia SOS Arrazakeriako kideak etorkinek laguntza hori jasotzeko dituzten zailtasunak aipamatu aurretik. «Opari bat ematen dietela dirudi, baina ez da horrela; haien eskubidea da». Eskubidea izanagatik, ordea, kasu askotan ez dela betetzen dio Garciak.

Hasieratik arazoei aurre egin behar dietela dio Garciak. «Udalerriren batean errolaturik egon behar duzu laguntza jaso ahal izateko. Eta urtea bete bitartean nondik atera dezake gizarteratzeko behar den dirua?». Homologaziorik gabeko ikastarok eta instituzioen partetik nolabaiteko «kriminalizazioa» dagoela dio. Egoerak hobera egingo duen itxaropen gutxi ditu Garciak, erakundeak eguneroko gauza txikiak zuzentzeko bidean ez daudela deritza eta.

ruan muga jarri gabe». Orain arte Gizarte Larrialdietarako Diru laguntzek (GLD) betetzen baituzten hutsune hori, eta oinarrizko errentan jasotzen ez dutenek laguntza horietara (GLD) jotzeko aukera izango dutela argitu du Santiagok.

Erabaki horrek benetako arazari ez diola mesederik egiten deritza Juradok, osagarri hori «neurririk gabeko alokairuak» jartzen dituztenentzat baita. Etxebizitza-sozial parke baten beharra aipamatu du hori zuzentzeko, oinarrizko errenta jasotzen dutenek alokairurik ordaindu be-